





EAEko ekonomiaren termometroa 84,5ean dago



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Martxoan, EAEko ekonomiaren termometroak 84,5 puntuko balioa lortu zuen, eta hazkunde leuneko eremuan beste hilabete batez jarraitu zuen. Hain zuzen ere, 2,5 puntu igo zen otsailarekin alderatuta, zerbitzuen une onari esker, haiek izan baitziren, berriz ere, EAEko ekonomiaren sektore dinamizatzailea. Era berean, enplegua erritmo onean sortu zen.

EAEko KPI indizea %3,2ra igo zen martxoan




Iturria: INE.

INEk argitaratu berri duen informazioaren arabera, martxoan EAEko KPI indizea %3,2an kokatu zen, aurreko datua baino hamarren bat gorago. Aitzitik, azpiko inflazioa puntu erdi jaitsi zen, eta une hauetan %3,4an dago, azken bi urteetako baliorik baxuenean, alegia.



Euskadin 682 enpresa sortu ziren otsailera arte

EAEn eratutako enpresak
Urte bakoitzeko urtarriletik otsailera



Iturria: INE.

2024ko lehen bi hilabeteetan, 682 enpresa berri eratu ziren EAEn, hau da, aurreko urteko aldi berean baino %23,1 gehiago. Zehazki, aurtengoa 2014tik lortutako baliorik handiena da. Halaber, urtarrila eta otsaila bitartean enpresa horiek sortzeko jarritako kapitala esanguratsua izan zen, 72 milioi eurotik gorakoa.

Desagertutako enpresen kopurua nabarmen igo da

EAEn desagertutako enpresak
Urte bakoitzeko urtarriletik otsailera



Iturria: INE.

Urtarriletik otsailera bitartean, EAEn 461 enpresa desagertu ziren, 2023ko aldi berean baino 118 gehiago. Hori horrela izanda, lau urtean ixten diren enpresen kopuruak beharazko joerari eutsi ondoren, aurtengoa nabarmena erregistratu da (%34,4).